



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko maiatzaren 8a

42. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, Nafarroako enpresa publikoen administrazio kontseiluei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, funtzionario-talde batzuek erabiltzen dituzten Nafarroako Gobernuaren edo udalen jabetzako etxebizitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko Foru Ogasunak zenbat diru gutxiago bilduko lukeen, 16.000 euro baino gutxiago irabazten duten zergadunei PFEZa ordaintzeko betebeharra kenduz gero. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Zangozako Rocaforten dagoen San Martingo zubi erromanikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko ikasleen ehuneko zenbat egiten duten ikasle etorkin matrikulatuek Nafarroako ikastetxetan. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren lan eskaintzen bilatzailean enpleguaren arloko bazterkeria agertzen duen iragarki bat egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, NA-4150 errepidea, N-170 errepidean hasi eta Leitzako gainean amaitzen dena, hobetzeko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, banda zabaleko sarbidearen zerbitzua Nafarroako populazio osoari zabaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Zangozan hirigintza arloko aholkularitza bulegoa jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, bulego judicial berria dela-eta eskaturiko azterlanei, haren kokalekuari eta abarri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren buruaren lansariei eta ordainsariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomasosi erretinianoa duten gaixoen tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean izapidetzen diren erreklamazio eta kexei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Erriberako zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatrikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Aresoko udalerrian Leitzatik Iruñerako A-15 autobien sarbidean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Cadreita eta Viana bitartean garatzen ari diren edo garatu nahi diren industrialdeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak ba al duen asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat ekintza mediko edo laguntza egin den 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, ospitaleetako larrialdietako zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, jakiteko ea, hitzarmenak albo batera utzita, badagoen inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, jakiteko zein fasetan dagoen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko proiektua. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, jakiteko nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzordeko kide izateko. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako enpresa publikoen administrazio kontseiluei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako enpresa publikoen administrazio kontseiluei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako enpresa publikoen gaineko zenbait gaiari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Egungo gobernuak jabetza hartu zuenetik –2007ko abuztuaren 17an– eta Parlamentuko Mahaiak galdera hau onartu zuen arte –2007ko azaroaren 12an–, enpresa publikoetako administrazio kontseiluek zazpi bilera egin dituzte.

Zehazki, hona bileren zerrenda:

- Agencia Navarra de Innovación y Tecnología SA: bilera bat (2007/11/15)
- Gestión de Deudas SA: bilera bat (2007/10/24)
- Navarra de Gestión para la Administración SA: bilera bat (2007/09/11)
- Navarra de Infraestructuras Locales SA: bilera bat (2007/11/28)
- Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra SA: bilera bat (2007/11/16)
- Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras: bi bilera (2007/10/04 eta 2007/10/23)

Oraindik ere bildu ez diren administrazio kontseiluak ondoko hauenak dira:

- Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra SA
- Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas SA
- Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra SA
- Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra SA
- Instituto Técnico y de Gestión Agrícola SA
- Instituto Técnico y de Gestión Ganadero SA
- Navarra de Medio Ambiente Industrial SA
- Navarra de Suelo Residencial SA
- Planetario de Pamplona SA
- Riegos de Navarra SA
- Riegos del Canal de Navarra SA
- Viviendas de Navarra SA

2. Bileran bertaraturakoen izenak eta egindako bileretan aztertutako gaiak:

#### **• Agencia Navarra de Innovación y Tecnología SA (2007/11/15)**

Parte-hartzaileak:

- Álvaro Miranda Simavilla
  - María Kutz Peironcely
  - José María Roig Aldasoro
  - Juan Franco Pueyo
  - Cernin Martínez Yoldi
  - Begoña Urién Angulo
  - Jesús Ascunce Elizaga
  - Jesús María Echeverría Azcona
  - Carlos Pérez Nievas ez zelako joan desenkusatu zen eta kontseiluko beste ordezkari bat bidali zuen
  - Belén Goñi Alegre
- Idazkaria:
- José Antonio Arrieta Garnica

Gai zerrenda:

1. Agencia Navarra de Innovación y Tecnología SA enpresaren administrazio kontseiluko karguak banatzea.

2. Kontseilari berriek beren karguak onartzea.

3. Agencia Navarra de Innovación y Tecnología SA enpresaren aurkezpena: egungo jarduerak eta etorkizunean egingen direnak, 2007ko kudeaketa planaren betetzea eta aurreikusitako itxiera.

4. Kontseiluko lehendakariari ahalmen berezia ematea 60.000 eurotik gorako ordainketak egiteko.

5. Eskariak eta galderak.

• **Gestión de Deudas SA (GEDESA) (2007/10/24)**

Parte-hartzaileak:

– Lehendakaria: Mario Sánchez Trueba

– Kontseilariak: Fernando Sala Ibarrola  
Alfonso Tellechea Erlanz  
Eugenio Erro Gonzalo  
Javier Ugalde Adín  
Tomás Mendivil Lizarraga

Gai zerrenda:

1. Kudeaketa txostena eta 2007ko abuztuaren 31ko finantzen egoera-orriak.

2. Inbertsioak

3. Langileria

4. Eskariak eta galderak

5. Aurreko bilerako akta irakurri eta, bidezkoa bada, onestea.

• **Navarra de Gestión para la Administración (2007/09/11)**

Parte-hartzaileak:

– Lehendakaria: José María Roig Aldasoro

– Lehendakariordea: Fermín Muñoz Muñoz

– Kideak: José Luis Azcárate Sanz  
Eduardo Errea Rodríguez  
Miguel Ángel Iriso Lerga  
Imelda Lorea Echavarren  
José Luis Menéndez Rodríguez  
Ángel Sanz Barea  
Begoña Urién Angulo  
José Luis Yanguas Urmán

– Idazkaria eta legelari aholkularia: José María Echando Chango

Gai zerrenda:

1. Sozietateak S21SEC-n dituen akzioak saltzeko aukera.

2. Bileraren aktaren onarpena.

• **Navarra de Gestión para la Administración (2007-10-15)**

Parte-hartzaileak:

– Lehendakaria: José María Roig Aldasoro

– Lehendakariordea: Fermín Muñoz Muñoz

– Kontseilari delegatua: Juan Santafé Rodrigo

– Kideak: José Luis Azcárate Sanz  
Eduardo Errea Rodríguez  
Miguel Ángel Iriso Lerga  
José Luis Menéndez Rodríguez  
Ángel Sanz Barea  
Begoña Urién Angulo  
José Luis Yanguas Urmán

– Idazkaria eta legelari aholkularia: José María Echando Chango

Gai zerrenda:

1. Inbertsioak

2. Interes sozialeko beste gai batzuk

3. Bileraren aktaren onarpena

• **Navarra de Infraestructuras Locales SA (2007/11/28)**

Parte-hartzaileak:

– Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

– Lehendakariordea: Jesús María García Antón

– Kontseilari delegatua: Pedro Pegenaute Garde

– Kideak: Agustín Belloso Llorente  
Gregorio Galilea Arazuri  
Jesús Antonio Esparza Iriarte  
José María Irisarri Ollacarizqueta  
José Javier López Rodríguez  
José Javier Remírez de Ganuza Casado  
Luis María Sada Enériz  
Francisco Javier Sanz Carramiñana  
José Ignacio Sola Jiménez  
Alfonso Ucar Zaratieguí  
Begoña Urrutia Juanicotena

Gai zerrenda:

Ondoko karguak onartu: administratzaileak, lehendakariordea eta kontseilari delegatua

• **Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra SA (2007/11/16)**

Parte-hartzaileak:

- Lehendakaria: Javier Caballero Martínez
- Lehendakariordea: Martín Orradre Artieda
- Kontseilari delegatua: Ángel Sanz Barea
- Kideak: José Manuel Castillo Barbero  
José Luis Menéndez Rodríguez  
Estela Moso Sarasa  
José María Purroy Unanua  
José Ramón Rábade Iraizoz  
Ángel Luis Rivas Sánchez  
Juan Francisco Serrano Medrano
- dazkaria eta legelari aholkularia: José María Echando Changó
- Zuzendari kudeatzailea: José Manuel López Alemany
- Administrazio zuzendaria: Carlos Bellostas Torralba

Gai zerrenda:

1. Enpresaren jardueri buruzko txostena.
2. 2007. urteko kontratazioak
3. 2008rako aurrekontu proiektua
4. Aurreko akta irakurri eta onestea

• **Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras (2007/10/4)**

Parte-hartzaileak:

- Lehendakaria: Álvaro Miranda Simavilla
- Kideak: Laura Alba Cuadrado  
José María Roig Aldasoro  
José Carlos Esparza Sáez

Gai zerrenda:

1. Administrazio Kontseiluko karguak banatu
2. Kontu-ikuskaritza batzordearen txostena
3. SPRIN proiektuak finantzatzeko politikak eta diruzaintzaren kudeaketa
4. Sozietateak emandako ahalmenak berraztertzea
5. Nafarroako komunikazioaren ardatz estrategikoak azkartzeko plana

• **Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras (2007-10-23)**

Parte-hartzaileak:

- Lehendakaria: Álvaro Miranda Simavilla

- Kideak: Laura Alba Cuadrado  
Begoña Sanzberro Iturriria  
José María Roig Aldasoro  
José Carlos Esparza Sáez  
Juan Ramón Corpas Mauleón

Gai zerrenda:

1. Txosten ekonomikoa, finantza-egoera, behin-behineko balantzea
2. Los Arcos abiadura zirkuitua
3. Larra-Belagoako eski-zentroa
4. Nekazaritza-elikagaien hiria
5. Nafarroako komunikazioaren ardatz estrategikoak azkartzeko plana
6. Aire-bideen garapena: TAP-Portugalia
7. Los Arcos Zentro Teknologikoa (L'Urederra)
8. CENER
9. Domotika

3. Eginiko kontseiluen aktak bidaltzeko eskaerari dagokionez, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 127. quater artikulua ezartzen du administrariak "jakiten duten oro isilpean gordetzeko betebeharra" dutela. Ez dirudi betebehara hori batezgarria denik akta hirugarrenei ematearekin.

Arau horren testu bateginak (abenduarien 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretua) jasotzen du informazioa jasotzeko eskubidea badagokela (112. artikulua), baina zenbait murrizketa edo muga ezartzen ditu, eta horiek, hainbat kasutan, eskatutako informazioa ematea galarazten dute.

Ildo horretatik, Batzar Nagusiko akziodunen informazio eskubideari dagokionez, aipaturiko Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 112. artikulua hiruugarren atalean aipatzen da administrariak betebeharra dutela eskatutako informazioa emateko aurreko atalen babesean, salbu lehendakariak uste duenean argitaratutako informazioa interes sozialen kalterako izanen dela.

Bestalde, aipaturiko 127. quater artikulua bere 1. puntuan ezartzen du administrariak, beren kargua utzi ondotik ere, izaera konfidentziala duen informazioa isilpean gorde beharko dutela, eta behartuta egonen direla kargua bete izanagatik ezagutzen dituzten informazioen, datuen, txostenen edo aurrekarien isilpekotasuna errespetatzea, eta ezin izanen dietela hirugarrenei horien berri eman edo hedatu, baldin eta informazio horiek interes sozialen kalterako badira.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraituz, ez dira atxikiko informazio eskaera honetan administrazio kontseiluen aktak. Dena dela, interesdunak erregistro orokorrera joan daitezke egokitzen dituzten kontsultak egitera.

4. Egungo gobernuak jabetza hartu zuenetik, eta galderaren xede den epean, Nafarroako enpresa publikoetako kontseilariak ez dute dietarik jaso. Orokorrean, dieta horiek urtean behin eman ohi dira, ekitaldiaren amaieran (abendua) edo hurrengoaren hasieran (urtarrila), dagokion enpresako kontseilari izandako denboraren arabera.

5. Hurrengo lau urteetarako enpresa bakoitzean ezarritako lehentasun, proiektu eta helburu zehatzak jasotzen dituen txostena atxiki dugu.

6. "Enpresa publiko bakoitzak zein jarduera berrantolatzea aurreikusi duen" adierazpenari dagokionez, esan beharra dago adierazpen hori, egin bazen, honengatik egin zela: Nafarroako Gobernuak erabakia hartu duelako Nafarroako enpresen sektore publikoan holding bat sustatzeko. Proiektu hori uneotan bere hasierako fasean dago.

Iruñean, 2008ko otsailaren 1ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-07/PES-000114 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## **Galdera, funtzionario-talde batzuek erabiltzen dituzten Nafarroako Gobernuaren edo udalen jabetzako etxebizitzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du funtzionario-talde batzuek erabiltzen dituzten Nafarroako Gobernuaren edo udalen jabetzako etxebizitzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du funtzionario-talde batzuek erabiltzen dituzten Nafarroako Gobernuaren jabetzako etxebizitzei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuaren jabetzako 307 etxebizitza daude Nafarroako suhiltzaileentzat, bidezaintzat edo beste zerbitzu publikoetan dihardutenentzat.

2. Egun langile publikoek eta beren familiek 112 etxebizitza erabiltzen dituzte ohiko etxebizitza

gisa. Kopuru hori honela banatzen da: 19 etxebizitza jarduneko funtzionarioei esleitu zitzaizkien eta horiek erabiltzen dituzte; gainerako 93 etxebizitzak ez dituzte funtzionarioek erabiltzen, baizik eta jubilatutako funtzionarioek, alargunek edo seme-alabek.

3. Egun 115 etxebizitza dira biztanlerik gabe daudenak. Oro har, eraikuntza-egoera onean daude, kontuan izanik erabiltzen ez diren higiezinak hondatu egiten direla. Ondoko taula honek jasotzen du biztanle gabeko 115 etxebizitza huts horien banaketa, udalez udal:

Udalerrak	Etxebizitza hutsak
Nabaskoze	12
Erronkari	3
Lizarra	27
Los Arcos	14
Allo	1
Irurtzun	14
Altsasu	6
Iruña	3
Zangoza	9
Tutera	26
<b>Guztira</b>	<b>115</b>

Gainerako 80 etxebizitza biztanlegabeak (307 etxebizitza dira osotara) beste erakunde, udal edo departamentu batzuei laga zaizkie (72) edo bulego gisa erabiltzen dira (8).

4. Laugarren galderak udalaren jabetzapekoak

diren etxebizitzak aipatzen ditu, eta hori Departamentu honen eskumenetatik kanpo dago.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

---

## **Galdera, jakiteko Foru Ogasunak zenbat diru gutxiago bilduko lukeen, 16.000 euro baino gutxiago irabazten duten zergadunei PFEZa ordaintzeko betebeharra kenduz gero.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du jakiteko Foru Ogasunak zenbat diru gutxiago bilduko lukeen, 16.000 euro baino gutxiago irabazten duten zergadunei PFEZa ordaintzeko betebeharra kenduz gero.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco

Biarge jaunak galdera egin du Foru Ogasunaren bilketaren estimazio bati buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera ez da behar bezain zehatza ("Zenbat diru gutxiago bilduko luke Foru Ogasunak 16.000 euro baino gutxiago irabazten dituzten zergadunei PFEZa ordaintzeko betebeharra kenduz gero?"), beraz, ezinezkoa da kostua kalkulatzeari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren barnean magnitude ezberdinak daudelako (etekin gordina, etekin garbia, zerga-oinarria, likidazio-oinarria, etab.).

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Zangozako Rocaforten dagoen San Martingo zubi erromanikoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozako Rocaforten dagoen San Martingo zubi erromanikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Rocaforten dagoen San Martingo zubi erromanikoari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

XI. eta XII. mendeetan zubi bat egon zen, Entrambasaguasen kokatua.

Etengabeko uholdeek suntsitu egin zituzten zubi horren arrastoak, eta zubi berri bat eraiki zen 1871n, Manuel Garridoren lana.

Urtez urte izandako uholdeen eraginez, azken zubi hori oso egoera txarrean heldu zen XX. mendera, eta zubiari egin behar izandako berrikuntzak nabarmenak ziren –arkuak hormigoizko plantzez ordezkatu ziren–.

Uholde baten ondorioz, zubia erori egin zen 1971ko abenduaren hasieran.

Denboraren poderioz, ibaiaren ibilgua aldatuz joan da. Egun, zubi-bular bat dago ibilgutik kanpo, industrialdearen ondoan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 7an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, jakiteko ikasleen ehuneko zenbat egiten duten ikasle etorkin matrikulatuek Nafarroako ikastetxeetan.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko ikasleen ehuneko zenbat egiten duten ikasle etorkin matrikulatuek Nafarroako ikastetxeetan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Honako hau zen ikasle etorkinen egoera, aurreko ikasturtearen amaieran (2006/07):



<b>2006/07 ikasturtea – 2007ko ekaina</b>			
	Ikastetxe publikoak	Itunpeko zentroak	GUZTIRA
Matrikula	57.879	33.472	91.351
Ikasle etorkinak	7.612	1.824	9.436
Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko %	%13,2	%5,4	%10,3

Ikasle etorkinen eskolatzea, titulartasunaren arabera

- Ikasle etorkinen %80,7 ikastetxe publikoan eskolatzen da
- %19,3 itunpeko zentroetan

### **2007/08 ikasturtea**

Departamentuak orain arte bildutako datuen arabera, eta kontuan izanik aurtengo ikasturte honetan ikasle etorkinen kopurua handitu dela,

honako hau da aurtengo ikasturtearen amaieran egiten den estimazioa (aurreikuspena, galdera egin duen parlamentu-taldeari erantzuteko):

<b>2007/08 ikasturtea – 2008ko ekainerako aurreikuspena</b>			
	Ikastetxe publikoak	Itunpeko zentroak	GUZTIRA
Ikasle etorkinak	7.983	2.056	10.039

Ikasle etorkinen eskolatzea, titulartasunaren arabera

- Ikasle etorkinen %79,5 ikastetxe publikoetan eskolatzen da
- %20,5 itunpeko zentroetan.

### **Ohar argigarria:**

Irakaskuntza publikoari dagozkion datuak eguneratuak daude (EDUCA programaren barruan daudelako). Ez da gauza bera gertatzen itundutako sareari dagokionez. Baina, kontuan hartuz ondoko datuak:

- 2006ko ekainean, itundutako zentroetan 1.604 ikasle etorkin zeuden matrikulatuta;
- 2007ko ekainean, itundutako zentroetan 1.824 ikasle etorkin zeuden matrikulatuta;

estimazio bat egin dezakegu balizko hazkundeari buruz. Hipotesi horri jarraikiz, eta benetako datuak lortu bitartean, 2008ko ekainean itundutako zentroetan 2056 ikasle etorkin egon dira eskolatuta, eta ikastetxe publikoetan, 7.983.

Departamentuaren helburu nagusienetarikoa bat da oreka lortzea ikastetxe publiko eta itundutako artean, ikasle etorkinen kopuruari dagokionez. Hori horrela, desoreka hori murrizteko neurriak hartu dira.

“Hezkuntza Departamentuak, aurreinskripzioko epea amaitu arte, ikastetxe publikoetako eta ikastetxe pribatu itunduetako ikaspostuetako batzuk gorde ahal izanen ditu hezkuntzako laguntzaren arloan berriazko premiak dituzten ikasleentzat eta, hezkuntza premia bereziak izan edo ez, egoera sozial eta kultural txarrean aurkitzen diren ikasleentzat. Horrela eskolatzea erraztuko die eta hezkuntzarako eskubidea bermatuko die. Halaber, Departamentuak baimena eman ahalko du gela bakoitzeko baimendutako ikasle kopurua %10 igo dadin, gehienez, berandu sartutako ikasleentzako beharrei erantzun ahal izateko.” (apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuko 20.2 .artikulua –Foru Dekretu horrek ezartzen ditu unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta itundutako ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko arauak) 2007ko apirilaren 27ko 52. Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

2008ko otsailaren 6an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren lan eskaintzen bilatzailean enpleguaren arloko bazterkeria agertzen duen iragarki bat egoteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren lan eskaintzen bilatzailean enpleguaren arloko bazterkeria agertzen duen iragarki bat egoteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nabai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren lan eskaintzen bilatzailean enpleguaren arloko bazterkeria agertzen duen iragarki bati buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1 eta 2.- Nafarroako Enplegu Zerbitzuko lan eskaintzen interneteko ataria da langileen eta enpresari enplegu zerbitzura dagoen tresna bat. Lan-merkatuko lan eskaintzak biltzen ditu, eta lan eskaintza horien eta eskaeren artean bitartekaritza egiten du.

Enpresek lan eskaintzak egiten dituzte enplegu-atariaren bidez. Lan eskaintza horiek argitaratu aurretik, kasuan kasuko enplegu agentziako teknikariek berrikusten eta balioztatzen dituzte. Enplegu agentziek enpresekin adosten dute era horretan iragartzea lan eskaintza (argitalpena aukera bat da; hortaz, gerta daiteke enpresak bere eskaintzak argitaratu nahi ez izatea).

Aipatutako iragarkia enplegu-atarian argitaratu zen, eta horren aurretik egindako ohiko azterketan, ez zen hauteman lan eskaintzan gizonezko hautagaia eskatzen zenik. Beraz, gertakari horren berri izan zenean, berehala zuzendu zen. Gainera, berrikusi egin ziren enplegu-atarian argitaratuta zeuden lan eskaintza guztiak. Honako datua argi-

garria izan daiteke: 2007. urtean zehar enplegu-atariaren bidez 3.897 lan eskaintza jaso dira.

3.- Aurrerantzean, enplegu agentzietako teknikariek egin ohi duten jarraipenaz gain, Prestakuntza eta Bitartekaritza Zerbitzuak egunero begiratu du atarian argitaratutako lan eskaintzen edukia. Asmoa da lan eskaintzen baldintzetan ager litekeen edozein osagai baztertzailerik saihestea.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Kudeatzailetzak gogorarazi die enplegu agentziei indarrean dauden arauak eta prozedurak zorrottasunez jarraitu behar dituztela, enplegu-atariaren bidez lan eskaintzak iragartzeko nahiz enplegu agentziek haiek kudeatzeko. Arau eta prozedura horietan honakoa jasotzen da:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan aurkeztutako lan eskaintza batean azalduko balira "gizonezkoa" edo "emakumezkoa" terminoak baldintzen artean, edo "lehentasuna du" edo antzeko esanahia duen adierazpenen bat, lan eskaintza hori jaso duen teknikariak jakinaraziko dio eskaintza bidali duen pertsonari termino horien erabilera sexuaren arabera bereizkeria dela, eta, kendu nahi ez baditu, gure zerbitzutik ezin izanen dugula eskaintza hori ez kudeatu ez iragarri. Era berean, teknikariak jakinaraziko dio legez kanpokoa dela sexuaren arabera baztertzeko edo lehenestea, pertsonen lanpostu bat esleitzeko prozeduretan. Inolaz ere ez da onartuko indar fisikoaren arazoia erabiltzea sexuaren arabera bereizkeria justifikatzeko. Iragartzen diren eskaintzek, iragarki-taulan nahiz enplegu atarian, ez dute inolaz ere jasoko sexuari buruzko aipamenik edo horren arabera lehenetsunik.

4.- Hartu beharreko neurriak aurreko atalean xedatutakoak dira; beraz, orokorrean aplikatuko den irizpidea da bereizketarik ezarena eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 31n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, NA-4150 errepidea, N-170 errepidean hasi eta Leitzako gainean amaitzen dena, hobetzeko aurreikuspenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-4150 errepidea, N-170 errepidean hasi eta Leitzako gainean amaitzen dena, hobetzeko aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du NA-4150 errepidea hobetzeko lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

NA-4150 errepidea, Leitza-Goizueta-Hernani, NA-170 errepidean hasten da (A-15 autobia, Leitzaran-Doneztebe) eta amaitzen da Gipuzkoako mugan, Hernaniko norabidean. Errepide horren egoera oso ona da (zoldura egoera onean dago, areka zanpagarri garbiak ditu, etab.). Oraingoz errepide horretarako aurreikusitako lanak ohiko mantentze-lanak dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutako zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer alde dago Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioak egiten duen lanaren eta Ondare Historikoaren Zerbitzuak –Kultura eta Turismo Departamentuaren menpeko zuzena– egiten duen lanaren artean?

Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak honako helburuarekin sortu zuen: Nafarroako monumentu-eraikinen kontserbazio eta zaharberritzea arintasunez eta eraginkortasunez sustatu eta kudeatzea, eta beharrezkoa denean, ekimen pribatutik etorritako laguntza ekonomikoak ere aurreikustea.

Fundazio horren bidez, lan handiei ekin dakieke interes kulturalako ondasuntzat jotzen diren monumentuak zaharberritzeko, urte askotarako jarraipena bermatuz. Kontuan izan behar da honakoak izanen direla, besteak beste, ekintzaren helburu diren monumentuak: Tuterako katedrala, Uxueko Santa María santutegia, Artaxoako San Saturnino eliza, Fiteroko monasterioa... Esku-hartze horiek zenbait urte iraunen duten proiektuak eskatzen dituzte.

Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioak bere funtsen kudeaketa, kontratazioa eta administrazioa egiten du, eta baita garatzen dituen proiektuen hautaketa ere. Egiten dituen zaharberritze lanak kontrolatzeko, ikuskatzeko eta zuzentzeko Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikarien laguntza dauka. Baina ez du baztertzeko kanpoko teknikariak eta taldeak kontratatzea, proiektuak garatzeko nahiz horiek egiteko.

2.- Zenbateko baliabideak lortu ditu fundazioak, 2000n abiarazi zenetik, foru administrazioaz bestelako edozein pertsona fisiko eta/edo juridiko, publiko eta/edo pribaturengandik? Egoerari buruzko ezagutza taxuzkoa lortzearen, zerranda bitez honakoak:

- 2000. urteaz geroztik inbertitutako kopuru orokorra, kontzeptu guztiak biltzen dituen.

- Foru izaeraz bestelako funts publikoetatik nahiz pribatuetatik eskuratua den inbertituriko kopuru orokorra.

- Bi inbertsioen ehunekoak


Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioak 17.205.334,17€ kudeatu ditu 2007ko abendura arte.

Funtsak eskuratzeko egindako kudeaketa 5.424.634,27 €-koa izan da –Fundazioak kudeatutako diru guztiaren %31,72– eta diru-kopuru hori Nafarroako Gobernuaz kanpoko erakundeetatik dator. Nafarroako Gobernuak Fundazioari emandako dirulaguntzak urteotan kudeatutakoaren %68,28 dira.

3.- Zer entitatek egin dituzte ekarpenik aipagarrienak?

Fundazioaren kudeatzailtzak kanpaina ezberdinak egin ditu funtsak eskuratzeko. Kanpaina horien bidez, Fundazioa harremanetan jarri zen Nafarroako 75 enpresarekin. Asmoa zen enpresa horien dirulaguntza lortzea proposatutako lanak babesteko. Horietatik guztietatik hamahiruk lagundu dute, eta horietatik bik zerbitzu zehatzak eskaini dituzte, ekonomikoki baloratzen zailak direnak.

	<b>Ekarpinak</b>
Fiteroko Monasterioaren Lagunen Elkarte	23.030,64 €
Autovía del Camino S.A	1.294.986,48 €
Tuterako Udala	100.000,00 €
Eroski	4.000,00 €
Nafarroako Kutxa Fundazioa	3.842.073,42 €
Guardian Navarra S.L.	16.116,36 €
Huguet	4.000,00 €
Iberdrola	6.000,00 €
Nasuinsa	9.000,00 €
Ventas Fundazioa	125.427,37 €
<b>EKARPENAK GUZTIRA</b>	<b>5.424.634,27 €</b>



4.- Nafarroako Gobernuaren ustez, patronatuaren gaur egungo osaerak lagundu egiten al du sektore pribatutik baliabideak eskuratzen?

Nafarroako Gobernuaren ustez, patronatuaren gaur egungo osaerak lagundu egiten du sektore pribatutik baliabideak eskuratzen.

5.- Nafarroako Gobernuak esaterik al dauka haren helburu, egitura eta funtzionamenduari eragiten dion aldaketarik izanzen den legegintzaldi honetan?

Gobernuak ez du baztertzen aldaketak eta hobekuntzak egitea, eta asmoa badu Departamentuaz kanpoko taldeak kontratatzeke.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 12an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, banda zabaleko sarbidearen zerbitzua Nafarroako populazio osoari zabaltzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du banda zabaleko sarbidearen zerbitzua Nafarroako populazio osoari zabaltzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 26ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du banda zabala Nafarroako populazio osoari zabaltzeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1. Bai. Telekomunikazioetako azpiegiturak hedatzeko planaren helburua da epe laburrean sare bat eratzea, zeinak, eskuragarri dauden ordezko teknologien bidez, banda zabaleko zerbitzu guztiak lurralde osoan eskainiko dituen. Uneotan, Nafarroako biztanleriaren %99,23k dauka zerbitzu hori.

2. Bai, kalitate-kontrolak egiten dira. Nafarroako Gobernuak astero biltzen da enpresa horrekin jarraipena egiteko, eta Iberbandaren sarearen hedapena eta funtzionamendua egokiak direla ziurtatzen du.

Esleipen baldintzen arabera, sare osoaren erabilgarritasunak izan behar du %99koa edo gehiagokoa (hilero). Ondoko formula honen arabera neurtzen da:

$$\equiv \frac{24 \times M - H}{24 \times M} \times 100$$

non: D den zerbitzua erabili ahal izan den denbora, ehunekotan.

M den aintzat hartutako denbora-tartea, egunetan.

H den zerbitzua erabili ezin izan den ordu-kopurua.

3. Galderan aipatu dira bermatutako gutxieneko emari portzentajeak. Horiek dira interneterako sarbiderako edozein teknologiatan izan ohi dire-

nak (ADSL edo WIMAX). Egungo egoera teknologikoak eta merkatuak ahalbidetzen dituztenak dira. Kontuan izan behar da telekomunikazio sare bat hedatzen denean, aldi berean erabiliko duen erabiltzaile-kopuruaren arabera egiten dela; beraz, baldintza normaletan, erabiltzaile guztiak ez daude konektatuak aldi berean. Baina, denak aldi berean konektatuko balira, bermatuta dago gutxieneko emari bat. Era berean, telefono sarea hedatzen denean, ez da egiten pentsatuz harpidedun guztiak dei bat eginen dutela aldi berean.

4. Aurreko ataletan erantzun zaiola uste dugu. Edonola ere, harpidedunaren eta Iberbandaren arteko harremana kontratu pribatu baten bitartez gauzatzen da.

5. Departamentu honi ez zaio jakinarazi abiadura galdu denik %80-90ean. Soilik, kexa zehatz batzuk jaso dira Etxalarretik.

Udalerrri honetako eremu batek ez zeukan Frairen kokatutako banagunearen estaldura. Egoera horri irtenbidea emateko, proiektu pilotu bati ekitea erabaki zen eta estaldura eskaintzea WIFI teknologiaren bidez. Teknologia horrek baditu bere mugak, eta nagusiena hau da: harpidedun batek partekatu egin behar du WIMAX teknologiaren bidez lortutako sarbidea WIFI sarbidea duten erabiltzaileekin. Irtenbide hori egokitzen jo zen, zerbitzua berehala eman ahal izateko. Oraindik, ez dago WIMAX errepikagailurik.

6. Behin Iberbandak instalatutako sarea gobernuari ematen zaionean, Opatel arduratuko da garraio-sarea (irradi-loturakoa) kudeatzeaz eta ustiatzeaz. Beraz, edozein operadorek, nahi izanez gero, aukera izanen du bere sarbiderako sarea instalatzeko, eta seinalea garraiatzeko erabili ahal izanen du Opatelak kudeatutako sarea. Asmoa da edozein operadoreri sarrera erraztea, lehia areagotzeko eta herritarrei eskaintako zerbitzua hobetzeko.

Halaber, Gobernuaren telekomunikazio zentroak beti egon dira eskaera egiten zuten operadore guztien eskura; alabaina, orain arte, inork ere ez du interesik azaldu zerbitzua landa eremuei eskaintzeko.

7. Honekin batera gai horri buruzko dokumentazioa doa: baldintza-agiriak eta kokalekuen koordenatuak.

Iruñean, 2008ko otsailaren 15ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, Zangozan hirigintza arloko aholkularitza bulegoa jartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozan hirigintza arloko aholkularitza bulegoa jartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozan hirigintza arloko aholkularitza bulegoa jartzeari buruz. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuaren asmoa da Zangozan aholkularitza bulegoa jartzea, tokiko erakundeek hirigintza eta etxebizitza arloko laguntza teknikoa emateko –hori egingen da “Navarra de Suelo Residencial S.A.” sozietate publikoaren bidez, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentu honi atxikita dagoena–.

2. Bulegoa helbide honetan jarri da: Kale Nagusia, 8, behea (Zangoza).

3. Lokala dagoeneko hornituta dago eta erabiltzen hasteko moduan. Langile teknikoak kontratuak daude eta aurreikusita dago lokalaren inaugurazioa 2008ko otsailaren 21ean egitea. Egun horretatik aurrera eskainiko da zerbitzua.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 19an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

## **Galdera, bulego judizial berria dela-eta eskaturiko azterlanei, haren kokalekuari eta abarri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du bulego judizial berria dela-eta eskaturiko azterlanei, haren kokalekuari eta abarri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko urtarrilaren 3ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Bulego Judizial berria deiturikoarekin zerikusia duten zenbait gaiari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Lehenik eta behin, eta uneotan erantzunaren datu garrantzitsuenetarikoa izan daitekeela ikusita, komenigarria litzateke galderaren azken atalean aipatutako gaiari heltzea: noizko dagoen aurreikusita Bulego Judizial berria deiturikoa ezartzea.

Hona erantzuna: lehenik, Espainiako Parlamentuak bere onespina eman beharko du aldatu ahal izateko ezarpen horri estaldura juridikoa ematen dioten arau prozesalak; izan ere, Bulego Judizial berriaren ezarpena Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusita badago ere –abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoa–, legegintzaldian zehar ez dira onetsi horretarako beharrezkoak diren erreforma prozesalak, ezarpen hori ahalbidetuko dutenak eta Nafarroako Justizia Administrazioaren errealitaterako egokiena izan den ereduari buruzko behin betiko erabakiak hartzea ahalbidetuko dutenak. Hori horrela, eta halakorik gertatzen ez den bitartean, ezinezkoa izan da Bulego Judizial berria ezartzea. Eta oraingo legegintzaldia amaitu denez, hurrengo gobernu osatu arte itxaron beharko da –martxoaren 9an hautatuko den parlamentu berriaren arabera–, jakin ahal izateko, gutxi gorabehera bada ere, noiz onetsi ahal izan den behin betiko lege-testuak.

2.- Bulego Judizial berriari buruzko balizko ikerketei dagokienez, adierazi behar da Nafarroa-

ko Justiziaren Kontseilu Aholku-emaileak bere sorreratik bertatik, 2005eko martxoaren 22an, bere lehentasunen artean jarri zuela jarduera zehatzak egitea Bulego Judizial berria legeak baimentzen zuen unean bertan abian jartzeko. Hori horrela, zeregin horretarako berariazko lan-talde bat eratzea onetsi zen.

Zeregin horri zegozkion lanak egin ostean, Nafarroako Justiziaren Kontseilu Aholku-emaileak, 2006ko azaroaren 8ko bilkuran, lan-dokumentu bat onetsi zuen, non Nafarroako Bulego Judizial berria izanen zenaren egituraren ildo nagusiak ezartzen ziren.

Lan hori ikusita, eta Gorte Nagusiek Bulego Judizial berria ezartzea ahalbidetuko zuten behin betiko datuak zehazten zituzten bitartean –horretarako beharrezkoak ziren arau prozesalak onartuz–, egokitzat jo zen plangintzan aurrera egitea, horretarako ikerketa bat eginez Nafarroako epaitegi eta auzitegietan izaera administratiboa duten hiru lanpostuetako lan-kargei buruz (kudeaketa prozesaleko kidegoa, izapidetze prozesaleko kidegoa eta laguntza judizialeko kidegoa), zehaztasunez jakiteko zenbat denbora eskaintzen zaion zeregin bakoitzari Nafarroako epaitegi eta auzitegietako prozeduretan. Horrela, bere garaian, Bulego Judizial berria ezartzen denean, datu zehatzak eskura izan den bertako unitate berrietako lanpostu-zerrendak behar bezala egiteko.

Horretarako, 2007an Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari eskatu zitzaion ikerketa hori egiteko. Ikerketa gaur egun garapen fasean dago eta oraindik ez da amaitu, organo judizialak konplexuak eta askotarikoak baitira, eta prozedura ezberdinetako izapideak ere bai. Amaituta dagoenean, tresna eraginkorra izan den da, eta beste batzuekin batera, Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzean diseinatutako Bulego Judizial berria ezartzeko balioko du. Nafarroako Gobernuak bulego horretarako kontuan izan den bere mende dagoen administrazioa modernizatzeke asmoz egindako ekintzak eta administrazio elektronikoaren ezarpena.

3.- Azkenik, aurreikusitako espazioei dagokienez, adierazi behar da gai hori gure komunitaterako eraginkorren delakoan onesten den behin betiko ereduaren araberkoa dela, eta hori egiten da beharrezkoak diren arau prozesalak onetsi eta indarrean sartu ostean (horretarako, lehen puntu-



an adierazi denez, ez dago data zehatzik) eta, behin ikerketa osatu ondoren, bertan hautemandako datu eta beharren arabera langile-egituraketa gauzatzen denean; orduan, administrazio bulego judizialen diseinu berrirako egokiak diren espazio fisikoen gaia jorratuko da.

Alabaina, oraindik ere Bulego Judizial berriaren espazioa zein izanen den aurreikusterik ez badago ere, dagoeneko irtenbideen bila gabiltza egungo Iruñeko Justizia Jauregiak espazioari dagokionez dituen mugak gainditzeko, eta datozen urteotan Estatuko Administrazio Orokorraren organoek erabakita Nafarroan sortuko diren organo

judizial berriei egoitza bat emateko. Izan ere, logikoa denez, datozen urteotan organo judizial berriak sortzen badira, berriro ere antolatu beharko dira Iruñeko Justizia Administrazioaren organoak eta bulegoak, eta horrek ere baldintzatu egingen ditu bulego berriaren espazioak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 19an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## Galdera, Foruzaingoaren buruaren lansariei eta ordainsariei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Foruzaingoaren buruaren lansariei eta ordainsariei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko urtarrilaren 3ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Foruzainburuari lotutako zenbait gairi buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen 27. artikuluan xedatzen denez, Foruzainburuaren ordainsaria izanen da zuzendari nagusientzat ezarritakoa –horren zenbatekoa jasota dago Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean–. Kopuru horri gehituko zaio bere jatorrizko administrazioan onartutako antzinasun saria.

2.- Foruzainburuak ez du beste inolako ordainsaririk jasoko Nafarroako funts edo ondare publikoetatik, nahiz eta esleituko zaizkion bere segurtasuna eta autobabesa bermatzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta material guztiak.

3.- 2007ko azaroaren 9tik 2008ko otsailaren 10era bitarte, Foruzainburuak ez ditu egiazki bete bere funtzioak aipaturiko buruzagitzan, eta beraz, administrazio honek ez dio eman inolako ordainsaririk.

Aipaturiko azken egunetik aurrera, eta otsailaren 1eko 102/2008 Errege Dekretuarekin bat –horren bidez aldatu egin zen polizia nazionalaren kidegoko hautapen eta prestakuntza prozesuei buruzko erregelamendua–, posible da prozesu horietan parte hartzea zerbitzu berezien administrazio-egoeratik. Hori da, hain zuzen ere, Fernández Díaz jaunaren egoera, eta horregatik, otsailaren 8ko 48/2008 Foru Aginduaren bidez, foruzainburu postuan sar dadila onetsi da eta, horrela, bere behin-behineko egoerari amaiera eman zaio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## **Galdera, Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomas erretinianoa duten gaixoen tratamenduari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomas erretinianoa duten gaixoen tratamenduari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomas erretinianoa duten gaixoen tratamenduari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Von Hippel-Lindau gaixotasunak oso prebalentzia txikia dauka. Gaixotasun hori genetikoa, herentziazkoa eta gainartzailea da; hau da, mutazioa duten pertsona gehienek horren zeinuren bat azalduko dute.

Nafarroako Ospitaleko Oftalmologia Zerbitzuko buru José Andonegui jaunak adierazi duenez, angioma erretinianoa da Von Hippel-Lindau gaixotasuna duten gaixoez izan dezaketen alterazio

oftalmologikoa. Angioma horiek trata daitezke laser bidezko fotokoagulazioaren bidez. Erretinaren aitizineko aldean badaude, ezin dira laserraren bidez tratatu, eta krioterapia erabiltzen da. Laserra nahiz krioterapia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan dauden bi teknika dira.

Angioma erretinianoaren diametroak 5 mm baino gehiago dituzenean, tratamendu egokiena izanzen litzateke brakiterapia (plaka erradioaktiboa aldi baterako jartzea). Teknika hori melanoma koroideekin erabiltzen denaren antzekoa da, eta egun ez da erabiltzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

Brakiterapia tratamendua behar duten gaixoez bidali egiten dira estatuan begietako onkologian diharduten zentro publikoetara; esaterako, Madrilgo Puerta de Hierro ospitalera. Sindrome horren prebalentzia oso txikia da, 35.000-40.000tik 1, eta 5 mm baino handiagoko angiomak izateko aukera ere txikia da.

2.- Prestazio eta Itunen Zerbitzuko informazioaren arabera, ez dago beste gaixorik diagnostiko hori izanik tratamendua Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo behar duenik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

## **Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean izapidetzen diren erreklamazio eta kexei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean izapidetzen diren erreklamazio eta kexei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean

izapidetzen diren erreklamazio eta kexei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalaren helburua da gaixoek egindako erreklamazioei erantzunik egokiena ematea, ahalik eta informazio gehienarekin eta araz finkatutako epean.

Helburu hori kasu gehien-gehienetan betetzen da, baina gerta daiteke, erreklamazio zehatz batzuei erantzun ahal izateko, beharrezkoa izatea horretan inplikaturako profesional ezberdinengandik informazioa biltzea. Hori horrela, erantzunak ahalik eta informazio gehien bil dezan, gerta daiteke araz finkatutako 20 egun naturalak gainditzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Erriberako zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatrikoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Erriberako zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatrikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Erriberako zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatri-

koari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Duela gutxi, onartu dira Nafarroako Alderdi Sozialistak Nafarroako aurrekontu orokorreari egindako bi zuzenketa, hain zuzen ere, Tuterako osasun eskualdean ospitaleratzeko psikiatria unitate bat eta zainketa aringarrietarako beste bat ezartzeko buruzkoak.

Gaur egun, bi proiektu horiek azterketa fasean daude, etorkizunean ezartzeko. Proiektu horien ezaugarrien eta beren ezarpen faseen berri ematen dizugu.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Aresoko udalerrian Leitzatik Iruñerako A-15 autobiarene sarbidean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Aresoko udalerrian Leitzatik Iruñerako A-15 autobiarene sarbidean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik dagoen gaztelania hutsean Leitzatik Iruñerako A-15 autobiarene sarbideko informazio-panela. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Kartela Leitzako lotunean dago kokatua, Iruñerako irteeran. Ongietorria emateko kartela da, seinaleztapen turistikoaren proiektuari jarraituz jarri diren horietakoa. Proiektu hori elkarrekin garatu

dute Kultura eta Turismo Departamentuak eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak. Mota horretako kartelak jarri dira Foru Komunitatera sartzen diren errepide nagusien sarreran. Eremu euskaldunean bi kartel jarri dira: bat gaztelaniaz, eta bestea euskaraz. Honela daude kokatutak: gaztelaniazko kartela errepidearen eskuin aldean dago, eta euskarazkoa errepidearen ezker aldean edo autobiarene erdibitzailean. Autobideko erdibitzailean espazio fisikorik ez badago, biak eskuin aldean jarri dira. Hori da, hain zuzen, A-15 errepidean gertatzen dena; beraz, bi kartelak eskuin aldean jarri dira, elkarren artean 100etik 200 metrora bitarteko tartea utziz. Lehenengo gaztelaniazko kartela dago jarrita, eta jarraian, euskarazkoa. Hori da A-15 errepidean jarraitutako irizpidea: Leitzatik Iruñeko norabidean A-15era sartzen den ibilgailuak, euskaraz errotulaturakoa ikusiko du, izan ere gaztelaniazkoa metro batzuk lehenago dago eta ibilgailu horrek ezin du ikusi.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedaturakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Cadreita eta Viana bitartean garatzen ari diren edo garatu nahi diren industrialdeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Cadreita eta Viana bitartean garatzen ari diren edo garatu nahi diren industrialdeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Cadreita eta Viana bitartean garatzen ari diren edo garatu nahi diren industrialdeei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Industrialdeei dagokienez, bi tipologia bereizi ahal ditugu:

- Eskualde esparruko industrialdeak (udalerrian ahalmena gainditzen dute eta Nafarroako Gobernuari dagokio esku hartzea, zuzenean edo Nasuinsa sozietate publikoaren bidez).

• Udal esparruko industrialdeak (udalek sustatzen dituzte, udaletan egiten diren jarduerak arintzeko).

Hauexek dira aipaturiko eremuan garatutako industrialdeak:

<b>Egindako industrialdeak (eskualde esparruan)</b>	<b>Azalera gordina (m<sup>2</sup>)</b>	<b>Lurzatien azalera (m<sup>2</sup>)</b>	<b>Saldutako azalera (m<sup>2</sup>)</b>
San Adrián	240.056	145.459	145.459
Viana	658.921	437.929	123.351
<b>Egindako industrialdeak (udal esparruan)</b>	<b>Azalera gordina (m<sup>2</sup>)</b>	<b>Lurzatien azalera (m<sup>2</sup>)</b>	<b>Saldutako azalera (m<sup>2</sup>)</b>
*Milagro	78.504	65.394	60.109
*Mendabia	53.869	39.617	38.857
*Cadreira	112.249	78.018	52.331
Cárcar	155.281	52.576	51.595

Industrialde horiek egiteko, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten aipaturiko udalek eta Navarra de Suelo Industrial, S.A. –Nasuinsa sozietateak, ekainaren 1eko 9/1998 Foru Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat.

Horietariko industrialde batzuk, San Adriángoa kasu, 80ko hamarkadakoak dira. Udalek, gerora,

handitu egin dituzte, udal planeamenduaren bidez. Halaber, aipatu beharra dago industrialde batzuk beren udalek berek sustatu dituztela, esaterako, Azagran, Andosillan eta Lodosan.

Aurrekoez gain, gaur egun honako bi hauek daude azterketa eta izapidetze fasean:

<b>Eskualde esparruan izapidetzen ari den industrialdea</b>	<b>Azalera gordina (m<sup>2</sup>)</b>	<b>Lurzatien azalera (m<sup>2</sup>)</b>
Lodosa	782.336	575.493
<b>Aztertzen ari den udal ekimeneko industrialdea</b>	<b>Azalera gordina (m<sup>2</sup>)</b>	<b>Partzelaren azalera (m<sup>2</sup>)</b>
Mendabia	206.178	144.590

3. Laguntzak jasotzen dituzten industrialdeak udal ekimenekoak dira, betiere otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea betetzen badute (1997-03-07ko 29. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, eta horren aldaketa ere bai, 9/1998 Foru Legea, 1998-06-05eko 67. Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Nafarroako

Gobernua edo Nasuinsa sozietate publikoak garatzen ditu eskualde esparruko industrialdeak; beraz, ez dagokie dirulaguntzarik.

Aurreko guztia esanik, Nafarroako Gobernutik laguntza jaso duten udal industrialdeak ondokoak izan dira:

<b>Udala</b>	<b>Ordaindutako dirulaguntza</b>
Mendabia	29.799.475
Milagro	178.302,81
Cárcar	296.276,60 €

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, jakiteko Gobernuak ba al duen asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko Gobernuak ba al duen asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Ribaforada eta N-232 errepidea lotzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko lanei buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

“N-232 errepidearen bikoizketa, 2. zatia: Tuterako saihebidetza-Buñuelgo lotunea” lanak zerbitzuan paratu ziren 2007. urte hasieran. Ribaforada-

ko lotuneko argiztapenari dagokionez, etorkizunean beharrezkoak izanen ziren azpiegiturak ezarri baziren ere (kondukzioak, kutxatilak, kableatua, luminariak...), oraindik ere energia elektrikoaren hartunea egiteke dago.

Hartune hori ezartzeko, ondoko proiektua presatatu da: Ribaforada (Nafarroa) eta N-232 errepideko lotunea elikatze proiektua, aireko/lurrazpiko erdi-tentsioko lineaduna 13,2/kv, transformazio guneduna 250 kva eta lurrazpiko behe-tentsioko lineaduna. Proiektu horren aurrekontua 158.792,52 eurokoa da, BEZa barne, eta dagoneko hasi dira hori hiru hilabete baino gutxiagoko epean kontratatzeke eta egiteko izapideak.

Halaber, aurreikusita dago biribilgune horiek berriro landareztatzea. Horretarako, hutsarteak birlandatuko dira eta zuhaixka berriak landatuko dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, jakiteko zenbat ekintza mediko edo laguntza egin den 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Chivite Navascués andreak galdera egin du jakiteko zenbat ekintza mediko edo laguntza egin den 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du jakiteko zenbat ekintza mediko edo laguntza egin den 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Hauexek izan dira 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan egindako laguntzak:

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.	GUZTIRA
Nafarroako Ospitalea	5.141	4.408	4.728	4.632	4.944	4.686	5.157	4.743	4.557	4.909	4.609	4.827	57.341
Bideko Ama Birjina Ospitalea	5.647	5.150	5.247	5.170	5.803	5.426	5.662	5.221	5.317	5.464	5.117	5.596	64.820
Bideko Ama Birjina Ospitaleak ama eta haurrentzako atala	5162	4.615	4.610	4.604	4.999	4.788	4.145	3.841	4.629	5.377	4.829	6.122	57.721
Reina Sofia Ospitalea	4.700	4.330	4.248	4.307	4.377	4.427	4.575	4.587	4.307	4.651	4.297	4.807	53.613
G. Orcoyen Ospitalea	2.224	2.033	2.071	2.151	2.077	2.067	2.314	2.557	2.070	2.118	2.021	2.396	26.099
Larrialdiak, guztira	22.874	20.536	20.904	20.864	22.200	21.394	21.853	20.949	20.880	22.519	20.873	23.748	259.594

## **Galdera, ospitaleetako larrialdietako zerbitzuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Chivite Navascués andreak galdera egin du ospitaleetako larrialdietako zerbitzuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du ospitaleko larrialdi zerbitzuei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

## BIDEKO AMA BIRJINA OSPITALEA

1) GUARDIAK PRESENTZIA FISIKOAREKIN	2) GUARDIA LOKALIZATUAK	3) GUARDIARIK EZ
Analisi klinikoak	Analisi klinikoak	Alergologia
Anestesia orokorra	Anatomia Patologikoa	Dermatologia
Haurren anestesia	Haurren anestesia	Genetika
Tokoginekologiako anestesia	Aurpegi eta masalezurreko kirurgia	Neumologia
Kirurgia orokorra	Kirurgia plastikoa	Errehabilitazioa
Dietetika eta nutrizioa (igande eta jaiegunetan)	Kirurgia pediatrikoa	
Medikuntza intentsiboa	Digestio zerbitzuak	
Barne-medikuntza	Farmazia	
Nefrologia	Hematologia	
Neurofisiologia	Medikuntza intentsiboa	
Pediatria	Nefrologia	
Psikiatria	Neurofisiologia	
Erradiodiagnostikoa	Oftalmologia	
Tokoginekologia	Otorrinolaringologia	
Traumatologia	Pediatria	
Urologia	Psikiatria	
	Erradiodiagnostikoa	
	Tokoginekologia	
	Traumatologia	

## NAFARROAKO OSPITALEA

1) GUARDIAK PRESENTZIA FISIKOAREKIN	2) GUARDIA LOKALIZATUAK	3) GUARDIARIK EZ
Anestesia orokorra	Analisi klinikoak	Anatomia patologikoa
Kardiologia	Anestesia orokorra	Dermatologia
Bihotzeko kirurgia (igande eta jaiegunetan)	Kardiologia	Gaixotasun infekziosoak
Kirurgia orokorra	Bihotzeko kirurgia	Endokrinologia
Dietetika eta nutrizioa (igande eta jaiegunetan)	Kirurgia orokorra	Geriatría
Medikuntza intentsiboa	Bularraldeko kirurgia	Neumologia
Barne-medikuntza	Farmazia	Errehabilitazioa
Nefrologia (larunbat eta igandeetan)	Hematologia	
Neurokirurgia	Medikuntza intentsiboa	
Neurologia	Nefrologia	
Onkologia medikoa (larunbat eta igandeetan)	Oftalmologia	
Onkologia erradioterapikoa (larunbat eta igandeetan)	Otorrinolaringologia	
Psikiatria	Psikiatria	
Erradiodiagnostikoa	Erradiodiagnostikoa	
Traumatologia	Erradiofisika	
	Traumatologia	
	Urologia	



## REINA SOFÍA OSPITALEA

1) GUARDIAK PRESENTZIA FISIKOAREKIN	2) GUARDIA LOKALIZATUAK	3) GUARDIARIK EZ
Anestesia orokorra	Analisi klinikoak	Alergologia
Kirurgia orokorra	Anestesia orokorra	Dermatologia
Barne-medikuntza	Oftalmologia	Farmazia
Tokoginekologia	Otorrinolaringologia	Errehabilitazioa
Pediatría	Tokoginekologia	
Erradiodiagnostikoa	Traumatologia	
Traumatologia	Urologia	

## GARCÍA ORCOYEN OSPITALEA

1) GUARDIAK PRESENTZIA FISIKOAREKIN	2) GUARDIA LOKALIZATUAK	3) GUARDIARIK EZ
Anestesia orokorra	Analisi klinikoak	Dermatologia
Pediatría	Kirurgia orokorra	Farmazia
Tokoginekologia	Barne-medikuntza	Oftalmologia
Traumatologia	Erradiodiagnostikoa	Urologia

## Galdera, jakiteko ea, hitzarmenak albo batera utzita, badagoen inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko ea, hitzarmenak albo batera utzita, badagoen inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko ea, hitzarmenak albo batera utzita, ba al dagoen inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1).- Osasun Departamentuak ondoko kontratu hauek ditu foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuekin:

- San Juan de Dios Ospitalea
- Arcángel San Miguel Klinika
- Nafarroako Klinika Unibertsitarioa
- Felipe Lecea fundazioa
- Ahizpa Ospitalariak
- Argibide fundazioa
- Asociación Centro Oasis elkartea
- Nafarroako Gizakia Helburu fundazioa
- Antox
- Ibarre Multzoa S.A.L.

2).- Aipaturiko enpresa horiek beren laguntza ematen dute hiru alorretan: alde batetik, laguntza espezializatua ematen dute esparru guztietan (kontsultak, kirurgia handi ambulatorioa, ospitaleratzeta); beste talde batzuek adimen osasunaren alorrean dihardute eta, azkenik, hiru erakundek laguntza eskaintzen dute drogazaleak errehabilitatzeko.

- San Juan de Dios Ospitalea: Laguntza espezializatua, zainketa aringarriak
- Arcángel San Miguel Klinika: Laguntza espezializatua
- Nafarroako Klinika Unibertsitarioa: Laguntza espezializatua, organoen transplantea
- Felipe Lecea fundazioa: Egonaldi laburreko ospitaleratze psikiatrikoa; Ospitaleratze psikiatrikoa, laguntza soziosanitarioa
- Argibide fundazioa: Burlatako adimen osasuneko etxea eta eguneko ospitalea
- Asociación Centro Oasis elkarte: Zuría eguneko zentroa
- Nafarroako Gizakia Helburu fundazioa: Drogazaleen errehabilitazioa
- Antox: Drogazaleen errehabilitazioa
- Ibarre Multzoa S.A.L.: Drogazaleen errehabilitazioa

3). Ondokoa izan da zentro bakoitzaren zenbatekoa 2007ko ekitaldian:

– San Juan de Dios Ospitalea	13.460.078,00
– Arcángel San Miguel Klinika	1.402.269,00
– Nafarroako Klinika Unibertsitarioa	16.355.411,00
– Felipe Lecea fundazioa	619.432,00
– Ahizpa Ospitalariak – Adimen osasuna	863.230,00
– Ahizpa Ospitalariak – Soziosanitarioa	1.137.016,00
– Argibide fundazioa – Adimen osasuneko etxea	419.372,00
– Argibide fundazioa – Eguneko ospitalea	303.959,00
– Asociación Centro Oasis elkarte	308.134,00
– Nafarroako Gizakia Helburu fundazioa	721.257,00
– Antox	451.401,00
– Ibarre Multzoa S.A.L.	457.796,00

4). San Juan de Dios Ospitaleak honakoa egin zuen:

6.502 ebakuntza  
8.595 azterketa  
4.544 kontsulta eta  
3.659 tratamendu ambulatorio.  
1.088 egonaldi ordaindu ziren

Arcángel San Miguel Kliniketan honakoa egin zen:

209 ebakuntza  
90 kontsulta  
744 azterketa ambulatorioan eta  
187 tratamendu ambulatorio.  
2.690 egonaldi ordaindu ziren.

Nafarroako Klinika Unibertsitarioak honakoa egin zuen:

874 ebakuntza  
6.916 kontsulta  
5.859 azterketa ambulatorioan eta  
18.201 tratamendu ambulatorio eta 33 transplante  
9.777 egonaldi ordaindu ziren

Felipe Lecea Josefina Arregui fundazioak honakoa egin zuen:

Egonaldi laburreko 4.129 ospitaleratze psikiatriko

Ahizpa Ospitalariak egonaldi laburreko 8.510 egonaldi fakturatu zituzten.

Laguntza soziosanitarioari dagokionez, Ahizpa Ospitalariak ondokoa fakturatu zuten:

24.913 egonaldi egoitza lagunduan  
26.180 egonaldi egoitza psikogeriatrikoan  
4.263 egonaldi zaintzapeko etxebizitzetan eta  
6.347 egonaldi eguneko zentroan.

Argibide fundazioarekin eta Oasis elkartearekin sinatutako kontratu indardunaren helburua da osasun baliabideen mantentze-lana, ezarritako prezioarekin bat.

Gizakia Helburu Fundazioak honakoa egin zuen:

12.367 egonaldi arrunt  
1.701 konpentsazio-egonaldi eta  
9.544 egonaldi eguneko zentroan.

Antoxek honakoa egin zuen:

4.113 egonaldi arrunt, eta  
1.189 egonaldi konpentsaziozkoak.

Ibarre Multzoa S.A.L.-ek honakoa egin zuen:

9.828 egonaldi arrunt, eta  
1.348 egonaldi konpentsaziozkoak

5). San Juan de Dios Ospitalea:

Egonaldiak	7.081.082,00
Ebakuntzak	5.230.227,00

Kontsultak	199.384,00	Egoitza lagundua	527.430,00
Azterketak	355.698,00	Egoitza psikogeriatrikoa	497.597,00
Tratamenduak	340.267,00	Zaintzapeko etxebizitza	49.564,00
Zainketa aringarriak	253.420,00	Eguneko zentroa	62.424,00
Arcángel San Miguel Klinika:		Nafarroako Gizakia Helburu fundazioa:	
Egonaldiak	876.823,00	Egonaldi arruntak	565.667,00
Ebakuntzak	395.833,00	Eguneko zentroa	145.163,00
Kontsultak	5.329,00	Konpentsazioa	10.427,00
Azterketak	119.649,00	Antox:	
Tratamenduak	4.635,00	Egonaldi arruntak	188.129,00
Nafarroako Klinika Unibertsitarioa:		Egonaldi dualak	255.984,00
Egonaldiak	5.971.734,00	Konpentsazioa	7.289,00
Ebakuntzak	2.894.678,00	Ibarre Multzoa S.A.L.:	
Kontsultak	933.423,00	Egonaldi arruntak	449.533,00
Azterketak	1.086.210,00	Konpentsazioa	8.263,00
Tratamenduak	3.718.824,00	Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.	
Transplanteak	1.750.542,00	Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean	
Ahizpa Ospitalariak:		Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely	
Ospitaleratze psikiatrikoa	869.230,00		

## **Galdera, jakiteko zein fasetan dagoen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko proiektua.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zein fasetan dagoen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko proiektua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zein fasetan dagoen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia

eraberritzeko proiektua. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 157/2008 ebazpenaren bidez, gastua onartu zen eta espedientea hasi zen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko eta handitzeko lanak kontratatzeko.

2.- Lizitazioak aurkezteko epea otsailaren 5ean hasi zen, eta epe hori martxoaren 25ean bukatu zen.

3.- Ekitaldi honetarako 3.416.114 euroko gastua aurreikusi da, honela banatua: 73.550 euro zuzendaritzari dagozkio eta gainerakoa eraberritze lanei.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, jakiteko nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzordeko kide izateko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Chivite Navascués andreak galdera egin du jakiteko nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzordeko kide izateko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 4ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite

Navascués andreak galdera egin du jakiteko nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzordeko kide izateko. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun eta Kontsumo Ministerioak eskatu zion Osasun Departamentu honi Foru Komunitateko ordezkari bat proposatzeko Bioetika Batzorderako, eta Margarita Iraburu Elizondo andrea proposatu zen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	